

Nikolas Contreras Goikoetxea

D maila • 1 aipamena

Ataungoa naiz, 13 urte ditut, txikitatik esku pilota gustatu izan zait, baina orain dela 2 urte xakearen munduan murgildu eta asko gustatu zitzaidan. Literatura ere gogoko dut, bereziki bertsoak eta ipuinak.



AZKENEAN

1999ko irailaren 3a

“Albistegi guztietan nago, baina horrek ez nau pozten, oraindik triste nago. Orain dela asko nire senarra, Andoni, joan egin zen, kamioi hartan, militar haiekin, aurpegi triste harekin, oraindik ezin dut sinetsi...”

50 urte lehenago...

Egun argitsua zen, hodeirik gabea, zeru urdin bat eta haren erdian eguzkia dituenetakoa. Egun alaia izan arren, Mariarentzat ez zen hain alaia izango. Hark, ile beltza eta begi urdin eta handiak zituen. Betidanik emakume indartsua izan zen, bere kabuz familia oso bat aurrera ateratzeko modukoa. Hori gertatu baitzen. Gurasoak gaixotasunez hil eta 2 anaia eta 4 ahizpa gazteagoz kargu hartu zuen besteak hazi arte.

Ontziak garbitzen ari zela, 2 goardia zibil nazionalistak, Frankistak, Mariaren etxe zuriko zurezko atea jo zuten.

- Arratsaldeon, zure senarra hemen al dago?- bi polizietatik altuenak, bibotetxo eta guzti, galdetu zuen.

- Zertarako nahi duzue Andoni?- orduan konturatu zen: Andonik errepublikaren alde borroka egiteaz gain, erakunde sozialista baten kide zen!

- Berarekin hitz egin nahi dugu- beste gizonari, baxuagoa eta ile zuridunari, ez zion susmo onik hartzen.

- Ez dago etxean- udaltzainak urrundu beharra zituen, bestela akabo Andoni!

- Etxea erregistratu behar dugu- hori esan eta gizonik altuenak atea guztiz ireki eta aurrera joateari ekin zion.

Andoni barnean zegoen, egurra sutara botatzen, gauean hotzik ez izateko. Bibotedun pertsonaiari ez zitzaion ezer kostatu Andoni aurkitzea.

- Salaketa bat jaso dugu zu komunistatzat, eta beraz estatuaren etsaitzat hartzen zaituena. Mesedez etorri gurekin komisaldegira.

Maria dena entzuten ari zen.

- Gezurra!- Andonik ezin zuen sinetsi.

Mariak ere ez. "Ikaragarria zen, nori interesatuko ote zitzaion Andoni salatzea!"- pentsatzen zuen uneoro, ezin zuen burutik kendu. Eraman egin zuten Andoni. Hura izan zen Andoni, haren senarra, laguna, ikusi zuen azkeneko unea. Ezkondu berriak ziren, hilabete pare bat bakarrik pasa ziren ordutik, baina Mariaren bizitza jada ez zen berdina izango. Senarrak zituen lagunak lagunduta, probintziako salaketen artxiboan sartu zen, eta nahiz eta izen harrigarriak aurkitu, Andoniren salatzaileak ezizena bakarrik zuen: Hefesto.

Egunak joan eta egunak etorri, Andoni fusilatu zutela esan zien, egun triste hartako bi polizia berberak. Herrian jakin zutenean, jende asko etorri zen Mariarengana sentitzen zutela esatera. Haietako bat, Joan, egunak pasata ere han jarraitzen zuen, Mariaren ondoan, beti laguntzen, beti aurpegi irrifartsu eta triste batekin.

Urteak pasa eta gehiago gerturatzen ziren. Hainbeste, non Maria berriz ezkondu zen, oraingoan Joanekin. Joan behin baino gehiagotan saiatu zen Hefestoren arrastoa jarraitzen, baina denetan ezer lortu gabe.

Joan Hernandez errementaria zen, herriaren beste aldean egiten zuen lan. Haren familia Extremaduratik etorri zen lehen mundu gerran, eta herrian ez zuten begi onekin ikusten, Mariarekin ezkondu arte.

Egun batean, Joanekin bazkaltzen ari zela, Maria gauza batetaz ohartu zen: Joanek estatua greziar asko zituen, batzuk ezagutzen zituen: Zeus, Poseidon, Hermes, baina erdian zegoena ez.

- Nor da erdiko estatua hori?- galdetu zion Mariak

- Jainko greziar bat.

Orduan ez zion garrantzia handirik eman, baina etorkizunean izango zuen.

Urteak joan ala, urruntzen hasi ziren. Geroz eta haserreago, urrunago, harreman geroz eta hotzagoa. Horrek eztanda egin behar zuen.

Eta egin zuen.

1999ko abuztuaren 17a

Haserretu egin ziren biak, eta zaharrak izan arren, oso hitz gogorrak esan zizkien elkarri:

- Zurekin ezkontzea ideia txarra izan zen hasieratik!- ohiukatu zion Mariak.

- Hainbeste lan zurekin egoteko eta hori esaten duzu?!- esan behar ez zuen zerbait esan zuen Joanek.

- Zer esan nahi duzu?- galdetu zuen Mariak harrituta.

Orduan konturatu zen, ez zen kasualitatea ezkondu eta berehala Joan bere bizitzan sartzea. Greziar estatuak begiratu zituen. Erdikoa ez zuen ezagutzen. Bazekien Hefesto, Andoniren salatzaile madarikatua, jainko greziar baten izena zela. Akaso ez zen ba, erdiko estatua hura, Hefesto izango?

Korrika etxetik atera eta liburutegira joan zen, greziar mitologiari buruzko liburu bat hartu eta Hefestori buruzko orrialdea irakurri zuen.

Hefesto, besteak beste, errementarien jainkoa zela jartzen zuen, Joan bezala. Eta argazkian, Joanen etxeko erdiko estatua berbera agertzen zen. Hefesto Joan zen.

Ondorengo asteak Joani ezer esan gabe pasa zituen, frogak bilatzen, isil-isilik. Azkenean, irailaren 2ko gauean, gutun bat aurkitu zuen bien ganbaran, ondo ezkutatua zegoen kutxa batean. Hefesto izenez sinatuta zegoen, eta salaketa bat zen, Andoniri egindako salaketa. Gau hartan bertan, poliziari eman eta hatz-aztarnak aztertu ondoren, Joan atxilotu zuten.

1999ko irailaren 6a

Froga gabe norbait salatzea, horregatik salatua fusilatuko zutela jakinda, leporatu zioten arren, salaketa baztertu egin zuten jada oso zaharra baitzen krimena.

Libre utzi zuten, baina ez zuen Maria gehiago ikusi, urrutira joan baitzen, Hego Amerikara, seguruenik.

Horrela, Maria bakarrik geratu zen, triste, gezur batean bizi izan zela jakin baitzuen, baina gustura, Hefesto aurkitu baitzuen, azkenean.